

Euskal AEko biztanleria 11.700 pertsonatan hazi da 2020an, ia 2.200.000 biztanlera iritsita

Mende honetan 120.000 pertsona baino gehiago hazi da Euskal AEko biztanleria

Eustatek landutako datuen arabera, 2020ko urtarrilaren 1ean 2.199.711 biztanle zituen Euskal AEk, eta beste maximo historiko bat lortu zuen. Hala, aurreko urteko goranzko joerari eutsi zaio, 11.694 pertsona gehiagorekin 2019. urtearekin alderatuta. Zehazki, Euskal AEko biztanleria 120.501 pertsonatan hazi da 2001etik.

Hiru lurraldeetako biztanleriak gora egin du 2019tik 2020ra bitartean, eta Bizkaiak irabazi du biztanle gehien, 6.191 biztanle gehiagorekin; ondoren, Gipuzkoak 720.458 biztanle ditu, aurreko urtean baino 3.261 pertsona gehiago; Arabak, berriz, 330.209 biztanle ditu, eta biztanle-hazkunderik txikiena duen lurraldea da (+2.242 biztanle).

2001 eta 2020 artean, Gipuzkoan 48.024 biztanle gehiago izan ziren; bolumenari dagokionez, Araban 45.613 biztanle gehiago izan ziren, eta Bizkaian 26.864 biztanle gehiago bakarrik.

Euskal AEko hiru hiriburuetakoko biztanle-kopuruak gora egin du 2019tik 2020ra bitartean, eta Bilbo izan da igoerarik handiena izan duena, 3.048 pertsonarekin; Gasteizek eta Donostiak 1.938 eta 739 biztanle irabazi dituzte, hurrenez hurren. Aldi zabalagoan eginez gero analisia, emaitzak ezberdinak dira. 2001etik aurrera, Bilboko biztanleria ia ez da aldatu azken 20 urteetan (-974); Donostiaren bilakaera ere (+4.260) ez da oso garrantzitsua, eta bi hiriburuek beren biztanleria-kopuru handienara iritsi ziren 2009an. Gasteizen, ordea, biztanleria % 15 baino gehiago hazi da etengabe bi hamarkadotan, 214.676 biztanle izatetik 248.087 izatera igaro baita.

Euskal AEko gainerako udalerriek ez dute biztanleria-aldaketa esanguratsurik izan 2019tik 2020ra. Halatan, biztanleria gehien handitu duena Barakaldo izan da, 503 pertsona gehiagorekin. Baliarrain da udalerrria ehunekoen igoerarik handiena izan duena, % 9,27, hau da, 14 pertsona gehiago. Alderantziz, Getxo da biztanleriaren beherakada absolutu handiena izan duen udalerrria, 135 biztanle gutxiago, nahiz eta hori -% 0,18 baino ez den.

2001 eta 2020 artean Portugaletek, Sestaok, Basaurik eta Getxok 4.000 biztanle baino gehiago galdu zituen bakoitzak, guztira 17.352 pertsonako galera. Denak Bilbo Handiko udalerrriak dira, eskualdea non dauden biztanle-dentsitate handiendun udalerrriak Euskal AEn, km karratuko 5.000 biztanle pasa; Portugaleten da maximoa, 2020an 17.352 biztanlerekin km karratuko.

Eskualdeak kontuan hartzen baditugu, 2019tik 2020ra artean biztanle-hazkunde handiena izan duena, hain zuzen, Bilbo Handia izan da, 4.854 biztanle gehiagorekin; ondoren, Arabako Lautada (+2.158) eta Donostialdea (+1.658). Gainerako eskualdeetan aldaketa ez da esanguratsua izan aurreko urtearekin alderatuta. 2001etik aurrera, Arabako Lautadan eta Donostialdean hazi da berriz gehien biztanleria (38.715 eta

173.170, hurrenez hurren); Bilbo Handian, ordea, jaitsiera txikia izan da aldi horretan (-1.154).

Euskal AEko biztanleak, lurralde eremuen arabera, adin talde handiei jarraiki. 2020/01/01

	Guztira	0 - 19		20 - 64		>= 65	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskal AE	2.199.711	401.529	18,3	1.303.818	59,3	494.364	22,5
Lurralde historikoak							
Araba/Álava	330.209	63.767	19,3	196.922	59,6	69.520	21,1
Bizkaia	1.149.044	200.653	17,5	685.165	59,6	263.226	22,9
Gipuzkoa	720.458	137.109	19,0	421.731	58,5	161.618	22,4
Hiriburuak							
Bilbao	346.478	55.582	16,0	207.805	60,0	83.091	24,0
Donostia / San Sebastián	182.391	30.589	16,8	107.422	58,9	44.380	24,3
Vitoria-Gasteiz	248.087	47.746	19,2	147.903	59,6	52.438	21,1
Eskualdeak							
Añana	6.159	1.048	17,0	3.771	61,2	1.340	21,8
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	11.624	2.402	20,7	6.828	58,7	2.394	20,6
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	34.704	6.423	18,5	20.231	58,3	8.050	23,2
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	265.868	51.700	19,4	158.915	59,8	55.253	20,8
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.023	436	14,4	1.777	58,8	810	26,8
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	24.024	4.772	19,9	14.288	59,5	4.964	20,7
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	77.192	14.499	18,8	45.561	59,0	17.132	22,2
Bilbo Handia / Gran Bilbao	863.090	145.420	16,8	514.370	59,6	203.300	23,6
Debabarrena / Bajo Deba	55.870	10.772	19,3	31.925	57,1	13.173	23,6
Debagoiena / Alto Deba	63.313	12.010	19,0	36.349	57,4	14.954	23,6
Donostialdea	329.086	58.791	17,9	194.283	59,0	76.012	23,1
Durungaldea / Duranguesado	100.052	19.473	19,5	59.652	59,6	20.927	20,9
Enkartzioak / Encartaciones	32.021	5.733	17,9	19.249	60,1	7.039	22,0
Gernika-Bermeo	45.973	8.421	18,3	26.776	58,2	10.776	23,4
Goierni	68.719	14.202	20,7	39.633	57,7	14.884	21,7
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	8.831	1.758	19,9	5.400	61,1	1.673	18,9
Markina-Ondarroa	26.217	4.684	17,9	15.264	58,2	6.269	23,9
Plentzia-Mungia	57.667	12.150	21,1	35.566	61,7	9.951	17,3
Tolosaldea	49.546	10.461	21,1	28.810	58,1	10.275	20,7
Urola Kosta	76.732	16.374	21,3	45.170	58,9	15.188	19,8

Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika

Euskal AE da adineko pertsonen proportzio handiena duen erkidegoetako bat

2020an Euskal AEk, % 22,5ekin, Espainiako 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren proportzioa (% 19,6) gaintzen du, nahiz eta beste Autonomia-erkidego batzuek (Asturiasko Printzerria, Gaztela eta Leon eta Galizia) proportzio handiagoak dituzten, % 25aren gainetik. Europarekin alderatuz gero, Italiak soilik gaintzen du Euskal AEko proportzioa, baina soilik hiru hamarretan. Sexua kontuan hartuta, 65 urte eta gehiagoko emakumeen proportzioa % 25,1 da, eta gizonena, berriz, % 19,7.

Euskal AEko batez besteko ehunekoa gaintzen duten udalerrien kopurua 84 da, eta 167k balio bera edo txikiagoa dute; lehenengoen artean Bilbo, Donostia, Barakaldo eta Getxo daude, non Euskal AEko biztanleria osoaren % 32 bizi baita. 2001ean 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoa % 18 zen, eta batez bestekoa baino ehuneko handiagoa zuten udalerriak 163 ziren. Gainera, 2001-2020 aldian 112 udalerritan jaitsi da 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa, baina udalerririk horietan biztanleria osoaren % 5,8 soilik bizi da.

Euskal AEko udalerrietan bizi den biztanleriaren adinari dagokionez, alde handiak daude eta, zehazkiago, 65 urte eta gehiagoko pertsonen ehunekoari dagokionez, Irurako % 10,3 eta Haranako % 39,4 artean baitaude ehunekook. Lehenengoaz gain, % 12tik beherako ehunekoa duten beste hiru udalerrri daude: Astigarraga, Arakaldo eta Irura, zeintzuek guztira 8.656 biztanle dituzten. Bestalde, beste hiru udalerrri daude % 29ren gainetik: Lagran, Añana eta Gaubea; guztira 1.419 biztanle dituzte.

Eskualde-mailari eutsita, Arabako Mendialdean adineko pertsonen proportzio handia nabarmentzen da, guztizkoaren % 26,8ra iristen baita; Markina-Ondarroak, aldiz, ehuneko handiena duen hurrengo eskualdeak, % 23,9 du, eta Plentzia-Mungian % 17,3ra jaisten da.

Adin aurreratuenei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu ezen 85 urte eta gehiagoko pertsonak 2001ean % 1,9 izatetik 2020an % 4 izatera igaro direla, nahiz eta hazkunde hori modu desberdinean banatzen den emakumeen eta gizonen artean: portzentajezko 1,6 puntu gizonetan eta 2,6 puntu emakumeetan. Ondorioz, Euskal AEn 85 urte edo gehiago dituzten emakumeak guztirakoaren % 5,3 dira, eta gizonen kasuan portzentajea erdira jaisten da, % 2,6ra. 100 urte eta gehiagoko biztanleen artean, hazkunde-prozesua biziagoa izan da: 2001ean adin horretako 378 pertsona zeuden, eta hogeitun urte geroago, berriz, 726 pertsona, eta horien % 86,8 emakumeak dira.

Euskal AEn 65 urte eta gehiagoko 1,5 pertsona daude 16 urtetik beherako pertsona bakoitzeko, Espainia osoko ratioa (1,3) gaindituz, baina Asturiasko Printzerrian ikusten den 2,2ko erlazioetik urrun oraindik.

Erlazio hori gainditzen duten udalerrriak 88 dira; batzuk muturreko kasuak dira, hala nola Harana (7tik 1erako erlazioa) eta Lagran (6tik 1erakoa). Beste muturrean daude Irura eta Baliarrain, zeintzuek 0 eta 15 urte bitarteko 2 gazte baino gehiago baitituzte 65 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzeko.

Arabako udalerrietan daude muturrak biztanleriaren adinaren arabeko banaketan, batez ere tamaina txikia dutelako eta edozein fenomeno demografikok, migrazioak bereziki, banaketa hori aldatzen duelako.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62